

EDITORIALA

Enplegu kontuak

Zur eta lur geratu omen da makina iritzi emaile, hedabidetako esatari eta tertulietako partaide, jakin berri diren langabeziaren datuak aztertzerakoan. Nonbait uste zuten lan erreforman agindutako enpleguaren gorakada islatzen hasia behar zuela lan merkatuan... baina usteak erdia ustel eta, dudarik gabe, beste erdia gezurra.

Ez dago oso igarle fina izan beharrik lan erreformak, besteak beste, ekarritako kaleratze merke eta errazaren bidetik enpleguaren sorreran ez zuela lagunduko jakiteko. Kaleratze merkeak horixe bakarrik ekarri du, kaleratzeak. Modu honetan, patronalak nahi zuen eszenatokian kokatu du lan merkatua: langabetuen ilara handiak ustez egonkorrak diren langileak mehatxatzeko eta diziplinatzeko. Patronalen kontrolpean geratzen da lan merkatua, ez du inongo ahaleginik egiten enplegua sustatzeko, kaleratzeak diruz laguntzen zaizkio, lanaldi partzialeko kontratuak hobaritzen zaizkio... Zer gehiago behar du, bada? A zer pagotxa!

Beraz, argi dago ez dela bozera maile horien inozokeriaren kontua. Noren nomina-pean dauden ikustea besterik ez dago zeinen zerbitzura dauden jakiteko. Bitartean, langile klasea zigortu nahian, lana dutenekin eta ez dutenekin. Hortxe etorri zaigu ere Lopez lehendakaria enpleguak lehenetsun osoa duela adieraziz. Ez da izango ba, kargua duenetik hartu dituen erabakiak norabide horretan joan direlako.

Enplegua eta langabeziak benetan gu kezkatzen gaitu. Makina lankide prekarietatean murgildurik eta makina lankide langabezia. Horregatik defenditzen ari gara enplegua enpresa eta sektoretan, jakin bada-kigulako gure aurkako erasoak segida izango duela. Adostear dagoen negoziazio kolektiboaren erreformak are gehiago okertuko ditu egungo lan baldintzak eta prekarietatea. Askotan esan dugun legez, arrazoia gure alde dugu, eta orain indarra erakustea dagokigu. Ezinbesteko erronka eta aukera dugu lantokietan gure mezua helarazten, langileekin bat gure indarrak areagotzen, afiliatzen. Indar kontua bada, indartu gaitzen.

ELA reivindica la organización, movilización y lucha sindical feminista para hacer frente a los últimos recortes, que afectan, especialmente, a las mujeres

8 DE MARZO: MUJERES EN LUCHA CONTRA LOS RECORTES

Este 8 de marzo de 2011 viene marcado por la necesidad de que las mujeres sigan organizándose y movilizándose en su lucha por la igualdad. Y es que la reciente reforma de las pensiones firmada por CEOE, CCOO, UGT y Gobierno español sólo supone más recortes y pobreza para las trabajadoras. Tal como denuncian Leire Txakartegi y Jone Bengoetxea, del Área de Política de Género, "todas las reformas que se han hecho en los últimos tiempos tienen un impacto brutal y específico sobre las mujeres, ahondando en la feminización de la pobreza". "No hay otra alternativa que la lucha en un contexto en el que los poderes públicos han renunciado a la defensa de nuestros derechos sociales y laborales más básicos", concluyen.

En cuanto a la reforma de las pensiones se refiere, desde el Área de Política de Género se advierte que la misma imposibilitará a muchas mujeres el tener derecho a una pensión, o sólo accederán a pensiones irrisorias. Ese será el caso de las mujeres que trabajan a tiempo parcial, las que están indefinidamente con contratos temporales, aquéllas que tienen vacíos de cotización como consecuencia del tiempo dedicado al cuidado de personas dependientes, las mujeres que se encuentran en la economía sumergida, etc. Las consecuencias son claras: se perpetuará la feminización de la pobreza y la división sexual del trabajo. Txakartegi y Bengoetxea critican, asimismo, que el colectivo de las empleadas de hogar sigue sin contar con los mínimos derechos para percibir una pensión al encontrarse fuera del Régimen General de la Seguridad Social. "Probablemente, y una vez más, se perderá otra oportunidad para conseguir su plena integración en el mismo".

Al hacer un diagnóstico más general de la situación de las mujeres trabajadoras, estas dos sindicalistas son concluyentes:



es la división sexual del trabajo la que condiciona la situación de discriminación que sufren las mujeres y la que hay que ir desmontando si verdaderamente queremos dar pasos hacia la verdadera igualdad. "Partimos, por tanto, de una situación en la que sin crisis y con crisis la mujer está varios peldaños por debajo en el mercado laboral. Un mercado laboral que tiene dos características principales para la mujer: discriminación y precariedad", aseguran. La igualdad de las mujeres, por tanto, es una revolución pendiente que viene del siglo XX.

→
(Sigue en la página 2)

"Etxeko langileen kolektiboak pentsio bat jasotzeko gutxieneko eskubiderik ez dauka, Gizarte-Segurantzaren Erregimen Orokorretik kanpo baitago; orainoan ere beste aukera bat galdu dute erregimen horretan eskubide osoz sartzeko"

GEHIENGO SINDIKALAK MARTXOAREN 8rako ANTOLATUTAKO EGITARUA

10:00 Hitzaldiak

Bilbo: EHU-UPVren Paraninfoa, Abandoibarra, 3.

Donostia: Principal antzokia

Gasteiz: Villasuso Jauregia

Iruñea: Karlos III Zinemak

12:00 Manifestazioak eta kontzentrazioak

Bilbo: Euskadi Plazatik TGSSra, Gran Vía 87n.

Donostia: Boulevard

Gasteiz: Ama Zuriaren Plaza

Iruña: Udaletxeko Plaza

Arratsaldean

Gehiengo sindikalak bat egiten du mugimendu feministak Euskal Herriko hiri eta herrietan antolatu dituen mobilizazioekin, eta bertan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.

martxoak-8-2011

murrizketen aurrean
**emakume,
piztu borroka!**

reforma de pensiones:
más pobreza
para las mujeres

10:00etan BATZARRAK

BILBO: EHU-UPVren Paraninfoa

DONOSTIA: PRINCIPAL antzokia

GASTEIZ: VILLASUSO Jauregia

IRUÑEA: KARLOS III Zinemak
eta ondoren mobilizazioak

ELA-LAB-STEEBLAS-ENHE-NIRU



Leire Txakartegi y Jone Bengoetxea, responsables de género

Aunque estas sindicalistas reconocen que se han dado pasos formales como la Ley de Igualdad estatal y vasca, de la que se deriva, por ejemplo, la obligatoriedad de elaborar planes de igualdad en las empresas de más de 250 trabajadores/as, al mismo tiempo denuncian que la ley no se aplica. "Muchas empresas contratan asesorías externas, que en el papel elaboran unos planes muy interesantes pero que no recogen ni mecanismos concretos para llevar a la práctica lo que supuestamente se persigue ni mecanismos de seguimiento y evaluación. Todo queda en una mera declaración de buenas intenciones que ni siquiera son ciertas

porque al poder económico le interesa tener un ejército de trabajadoras de segunda, le interesa el paro, la precariedad... y el poder político se lo permite, demostrando, una vez más, la connivencia existente entre ambos".

Al ser cuestionadas sobre el papel del sindicato en este contexto, desde el Área de Política de Género se marcan distintas líneas de actuación, destacando la potencialidad de la negociación colectiva y la reivindicación de otro modelo de sociedad. "Desde la negociación colectiva, nuestro reto es la sindicalización y organización de las mujeres trabajadoras para que luchen por la dignificación del empleo y de sus derechos laborales. Esa es nuestra aportación fundamental como sindicato y lo que llevamos haciendo desde hace años en sectores como subcontratas de limpieza, residencias, comedores escolares, comercio... Asimismo, creemos que los planes de igualdad de las empresas deben integrarse como un elemento más, central, de la negociación colectiva. Aún siendo conscientes de su dificultad, si no damos pasos, si no rompemos inercias, nunca llegaremos a la igualdad real. Otra línea de trabajo del sindicato es su apuesta por otro modelo de

sociedad, que se concreta en nuestras demandas de más y mejores servicios públicos, de un incremento del gasto social, de un refuerzo de toda la infraestructura pública de cuidados... lo que permitiría el acceso de las mujeres al mercado de trabajo en condiciones de mayor igualdad", desgranar.

Txakartegi y Bengoetxea reconocen que se trata de un arduo trabajo en el que las propias mujeres trabajadoras deben ser protagonistas, aunque para que ello sea posible "hay que dar el salto de la conciliación a la corresponsabilidad".

Las responsables del Área de Política de Género de ELA concluyen su diagnóstico sobre la situación de la mujer en vísperas del 8 de marzo de 2011 con un mensaje de ánimo y lucha. "Los avances son más lentos que lo que nos gustaría, pero también es cierto que victorias y peleas como las protagonizadas por las trabajadoras de la residencia Ariznavara, de Gasteiz, y tantas y tantas otras que han tenido lugar estos últimos años, nos demuestran que es posible hacer cosas, nos demuestran que el camino es la sindicalización, la organización y la militancia sindical".

"Gure eskubideen aurkako erasoen aurrean, antolakuntza, mobilizazio eta borroka sindikala aldarrikatzen dugu"

"Pentsioen erreformaren kaltetu nagusiak emakumeak gara; asko eta asko izango dira eskubide hau galduko dutenak"

Nafarroa

Iñaki Zabaleta, azterketa bulegoko kidea Nafarroan

"UPN-REN NEURRIAK: PROPAGANDA ETA PREKARIETATEA ZABALTZEKO DIRULAGUNTZAK"



Nafarroako Gobernuak 2011rako krisiari aurre egin asmoz hartu dituen neurriak aurkeztu berri ditu. ELAren azterketa bulegoak egindako txosten batek agerian uzten duenez, neurri horiek propaganda hutsa dira, eta ez diete ez langile-klasearen ez gizartearen beharrei erantzuten. Iñaki Zabaletak neurri horiek aztertu eta bere gabeziak salatzen ditu.

-Zein hausnarketa egiten duzu Nafarroako Gobernuak "krisiaren kontrako 2011rako neurri"en inguruan?

-Lehenik eta behin, argi utzi behar dugu zerikusi gehiago dutela propagandarekin ondo pentsatutako eta aztertutako plan batekin baino. Planak helburu bakarra du: Gobernua krisiaren aurrean oso aktiboa dela agertaraztea. Izan ere, ezin dugu ahaztu maiatzeko hautes-kundeak gainean ditugula. Horregatik, 2011rako krisiaren aurkako neurri gisa

aurkezten ditu urtebetetik gora martxan zeuden neurri fiskalak, edota aurrez ere iragarritako beste batzuk.

-Sanzen gobernuak dio plan horri esker "enplegua sustatuko" dela?

-Ez da egia. Langa-beziaren inguruan berriki ezagutu ditugun datuek argi erakusten dute hori. Planak jasotzen duen bakarra da diruz lagundu egingo dutela edozein kontratu mota, bat ere bereziki gabe. Hau ezin da onartu. Adostasun zabala dago kontratuentzako dirulaguntzek ez dutela enplegurik sortzen. Politika honi eustekak azalpen bakarra du, enpresei diru publiko gehiago ematea, etekinak handiagoak izan daitezen.

Bestetik enpleguaren kalitateari ere erreparatu behar zaio. Nafarroan iragan urtean erregistratutako kontratuen %92,8 aldi baterako izan zen. Ez da posible Nafarroako Gobernuak kolokako enplegua eta kontratu prekarioak diruz laguntzea. Honela UPNren Gobernuak enpresei dirua ematen die prekariedade areagotu dezaten.

Salatzekoa da ere enpleguari buruzko neurrietako bat sindikatuak eta enpresari- elkarrekin diruz laguntzea izatea, orientabide eta informazio laborala ematearen truke. Nafarroako Gober-

nuak neurri honen bidez milioi 1 euro banatu nahi du 'gizarte-elkarrizketa' delakoan bere politikari babesa ematen dioten erakunde sindikal eta patronalei.

-Azterketa bulegoak egindako txostenak salatzen duenez neurriek ez dute lagunduko aberastasunaren banaketa justuago bat lortzeko.

-Hain zuzen ere, justu kontrako gertatuko da. Planarekin zerga-politika gero eta injustuagoa, elkartasunetik urrunago dagoena indartzen da. Orain aurkezten diren Sozietate-Zergaren jaitzierak dagoeneko onartuta badaude ere, argi geratzen da Gobernuaren helburua zein den; bere zerga-politika antisoziala da.

Enpresa Txiki Ertain gisa zergak ordaintzeko muga 9 milioitik 10ra igotzea ere sozietateen zerga murriztea da. Noski, zalantza egin daiteke 9 eta 10 milioi arteko negozioa egiten duten enpresak benetan Enpresa Txiki Ertainak ote diren, baina are okerragoa da ez dutela zehazten ogasunak zenbat diru gutxiago bilduko duen.

-Zaharrak berri, beraz...

-Bai. Neurri hauek nagusi den logika neoliberalaren ondorio dira. Diru-sarrera publikoei kalte eragiten diete, zergatan

gutxiago biltzen delako eta gastu publikoan enpresei lehentasuna ematen zaielako. Harritzekoa da Gobernuak, gastu publikoa eta batik bat gizarte-gastua zeharo murriztu duen honetan (horrek enpleguan eta gizarte-ongizatean dakarren kaltearekin), krisiaren kontra borrokan ari dela sinetsarazi nahi izatea.

-Egoera honen aurrean, zer eskatzen du ELAk?

-Nafarroako Gobernuak dioenez Plan honen kostua 72,9 milioi eurotakoa izango da. Gure eskakizuna agerikoa da: diru hori erabil dezatela gizarte-gastua gehitzen eta enplegu publikoa sortzen, osasungintzan, irakaskuntzan edo gizarte-zerbitzuetan. Honela aurrera egingo litzateke gizarte justuago bategarantz; eskubide sozialak hobetuko litzateke, ekonomia iraunkorragoa egingo luke eta enplegu egonkorra, kalitatezkoa, sortu. ELAk beste batzutan eskatu izan duen moduan, zerga-politika goitik behera aldatu eta politika publikoek xede hori izan beharko lukete: eskubide sozial gehiago, gizarte-gastu handiagoa eta diru-sarrera publiko ugariagoak, zerga-politika justuago eta progresiboago baten ondorioz.

"Las medidas anticrisis de UPN son mera propaganda, subvenciones públicas a la patronal para que siga contratando en precario"

EUSKAL KUTXA BAT, EUSKAL HERRITARREN ESKU ETA EURENTZAT LAN EGINGO DUENA



Aurrezki-kutxen lege berria eta sektorea berregituratzeko prozesua dela eta, BBK, KUTXA, VITAL eta CAN kutxetako ELAren atal sindikalek izaera sozialaren aldeko apos-tua berretsi nahi dugu.

2011ko otsailaren 18, ministro-kontseiluak lege-dekretu bat onartu zuen finantza-erakundeek duten gutxieneko kaudimen ratioa gehitzeko; aurrerantzean *core capital* edo oinarriko kapitala gutxienez %8koa izango da (erakundeek ustekabeko beharizan batean berehala erabiltzeko moduan izango luketen kapital gehi erreserben portzentajea, arriskuaren arabera ponderatutako aktiboekiko), eta %10ekoa Burtsan kotizatzen ez diren edo akziodun pribaturik ez duten finantza-erakundeen kasuan; hauen artean daude kutxak.

Lege-Dekretu hau banketxe pribatuen presio latzek, Europar Batasunaren exijentziek eta Espainiako Bankuaren aginduek gidatu dute; dekretuak aurrezki-kutxen izaera juridikoa deuseztatzen du, eta hauek privatizatze eta sozietate anonimo bihurtzeko atea irekitzen du. Joko-arauak aldatuta, aurrezki-kutxentzat atzerako zenbaketa bat hasi da, eta hau burutzean Burtsaratzea beste aukerarik ez zaie geratuko.

Banketxe pribatuek horrela betidanik aldarrikatu izan dutena lortuko dute, gizarte-ekintza eskuratzea, akziodunentzako etekin pribatu bihurtzeko.

Banketxe pribatuek horrela betidanik egin dituzten bi aldarrikapen betetzea lortu dute: lehakidea paretik kentzea eta gizarte-ekintza bereganatzea, akziodunentzako etekin pribatu bihurtuz.

Azken aldion agintari politiko eta monetarioek, Espainiako Bankuak barne, mezu nahasi, kontrajarri eta ilunak zabaldu dituzte kutxa batzuren benetako egoera ezkutatzeko asmoz. Ezkutatzeko ariketa nabarmen erraztu dute, onartu dituzten irizpide kontableekin erakunde askoren kinka larria mozorrotzen baitzen; aldiz, ez zuten onartu nahi aurrezki-kutxa gehien zinezko arazoa zein zen, kutxetako arduradun gehienek defenditu izan dituzten interes politikoak, alegia, eta ez kutxen izaera sozialaren aldeko jarrera.

AURREZKI-KUTXEN IZAERA SOZIALAREN ALDE

ELAK kutxen taxu sozialari eustea nahi du; horregatik, besteak beste, agertu ginen Caja Navarraren SIParen aurka, eta horregatik gure kutxak banketxe bihurtu edo privatizatze-asmoei aurre egingo diegu.

Orain arte aurrezki-kutxak banketxeengandik bereizten zituen desberdintasun nagusia funtsean irabazteko asmorik gabeko erakundeak izatea zen. Kutxak klase xeheei laguntza emateko sortu ziren, eta egun, legez, etekinen zati bat gizarte-ekintzara bideratu behar dute. Aurrezki-kutxek ez dute jaberik, kudeatzaileak baizik, eta ez dira Burtsan kotizatzen; horregatik kapital pribatuek ezin dituzte erosi.

Aitzitik, banketxeek irabazia lortzeko asmoa dute, eta etekinak beren akziodunei ordaintzeko eta erreserbak osatzeko erabiltzen dituzte.

BAT EGINDAKO KUTXARENTZAKO GURE EREDUA

ELAren iritziz, hiru kutxen (CAN ere sartzearen Hego Euskal Herri osorako kutxa bakarra osatzeko aldarrikapena alde batera utzi gabe) bat-egitea aukera egokia litzateke orain arteko ibilbide neoliberala zuzentzeko eta aurrezki-kutxen proiektuaren izaera soziala bermatzeko; Kutxa berriak euskal gizarte osoarekin konpromisoa hartuko luke, herritarren zerbiztutan eta Euskal Herriaren garapen ekonomiko eta sozialaren alde lan eginez.

Hain zuzen, gure finantza-erakundeak eta hauen interesak Euskal Herritik gidatzea aldarrikatzen dugu; kudeaketa eredu garden eta publikoaren aldekoak gara: kutxak ez dira interes alderdikoen menpeko bihurtu behar, ez botere nahia asetzeko tresna bihurtu (bat egiteko aurreko saioetan gertatu zen bezala).

Azken urteotan kutxek gizarte-gastua murriztu egin dute, funtsezko erreferentziatzat KPI hartu baitute, eta ez etekinen bilakaera, askoz handiagoa. ELAren irudiko politika hau zuzendu egin behar da eta irabazien zati handi bat gizarte-gastura bideratu, hau inoiz baino beharrezkoagoa baita krisi garaioan. ELAren apustua gizarte-ekintza kutxen atal bat izatea da, BBKko ereduari jarraiki.

ELAK eskatzen du kutxak bat egiteko prozesua balia dadi-la diskriminazioak desagerrarazteko eta langile guztien lan-baldintzak berdintzeko; erakunde berriko negoziazio kolektibo esparrua lau lurralde historikoen osatutakoa beharko luke. ELAK ez du inongo operaziorik babestuko, beraren ondorioz egun Euskal Herrian ditugun erakundeetako langileen baldintzak okerrera egiten badute.

BBK, KUTXA, VITAL eta CAN kutxetako ELAren atal sindikalak

• Martxoaren 3ko biktimak gogoan Gasteizen

ELA, LAB, STEE-EILAS eta ESK sindikatuek deituta manifestazioa antolatatu zen Martxoaren 3an Gasteizen, duela 35 urte egun horretan Zaragomaga auzoan hildako bost langileak gogoratzeko. Urtero bezala, manifestazioaren aurretik omenaldia zegoen iragarrita Martxoaren 3ko plazan, eta ELAren idazkari nagusia, Adolfo Muñoz, bertan izatekoa zen sindikatuko beste hainbat kideekin batera. Urteak pasa arren, gauzak ez direla aldatu eta gertakari horien errudunak ez dituztela oraindik epaitu salatu nahi du Muñozek.

• Cierre anunciado de Babcock

El día 23 de febrero la dirección de Babcock anunció la rescisión de todos los contratos de la planta de Trapagarán. Con la privatización realizada la última década Babcock dio los primeros pasos hacia la liquidación y su cierre definitivo, tras 93 años de actividad.

La SEPI, sociedad pública del Estado, con el aval de los sindicatos UGT y CCOO, ha llevado a la histórica factoría de Ezkerraldea a una muerte anunciada.

Durante estos años ELA no ha tenido ninguna información, y la SEPI se ha negado a mantener ninguna reunión con los responsables de nuestro sindicato.

El cierre de Babcock tendrá un importante impacto en la comarca, ya que además de los 400 trabajadores/as de la plantilla se verán afectados otros 500 empleos de las subcontratas y empresas auxiliares.

• Movilizaciones en los ayuntamientos de la CAPV en defensa del convenio colectivo

ELA y LAB han iniciado una serie de movilizaciones en defensa del convenio Udalhitz. El convenio afecta directamente a cerca de 22.000 trabajadores y trabajadoras de los ayuntamientos de la CAPV y repercute en las condiciones laborales de otros tantos empleados y empleadas que indirectamente se ven afectados por las condiciones laborales y salariales pactadas en este convenio.

ELA denuncia la escasa voluntad de la parte institucional para abordar una negociación con contenidos reales. Que los trabajadores y trabajadoras dependientes de las administraciones tengan un convenio digno es un pilar fundamental de cara al desarrollo de la administración y los servicios públicos. Por ello, ELA anima a participar en la dinámica de movilización a favor de estas reivindicaciones y del convenio sectorial.

AUMENTA EL PARO, LA PRECARIEDAD Y LA DESPROTECCIÓN SOCIAL

El 2 de marzo se conocieron los datos del paro correspondientes a febrero. Los datos publicados muestran que el paro ha aumentado en Hego Euskal Herria en más de 3.000 personas. En opinión de ELA, estos datos confirman que las instituciones han abandonado el objetivo de creación de empleo. Las políticas de recorte del gasto tienen como único objetivo la reducción del déficit público, y están teniendo nefastas consecuencias en el empleo.

ELA destaca los siguientes datos, que evidencian que el paro, la precari-

edad y la desprotección social siguen aumentando mes a mes:

- El paro registrado en las listas del Servicio Público de Empleo en el mes de febrero ha ascendido a 191.322 personas en Hego Euskal Herria, lo que supone un aumento del 1,6% respecto al mes anterior, y del 5,7% respecto al año pasado.
- Crece el porcentaje de personas en paro sin protección por desempleo. El 38,2% de quienes están en paro no ha recibido ninguna prestación por desempleo en el mes de enero, un 7,2% más que un año

antes. Desciende el porcentaje de la población que recibe prestación contributiva por desempleo (38,1%, 6 puntos menos que en enero de 2010). De esta forma, no sólo menos personas reciben prestación por desempleo, sino que además, quienes lo hacen, reciben una prestación menor.

- Aumenta la contratación temporal. De los 138.130 contratos de trabajo firmados en enero y febrero, el 92,2% ha sido temporal, medio punto más que el mismo periodo del año anterior.

Mikel Noval, responsable del área social, denuncia los recortes del Gobierno español en las pensiones

"EL RECORTE EN PENSIONES EQUIVALE AL 40% DEL GASTO ACTUAL"



La reforma de las pensiones va a suponer una gran reducción del gasto público dedicado a pensiones. Así lo reconoce el Gobierno español en la Memoria Económica del Anteproyecto de Ley de pensiones. Esta memoria reconoce que el recorte del gasto va a ser el equivalente al 3,8% del PIB, o, lo que es lo mismo, el 40% del gasto actual en pensiones contributivas.

Mikel Noval, responsable de política social, considera que estamos ante un atraco en toda regla, como lo hemos venido denunciando desde hace unos meses.

-Tras la aprobación del anteproyecto de ley de pensiones por parte del gobierno de Zapatero, con la cobertura del sindicalismo español, se están cumpliendo los peores augurios.

-No sé si son los peores augurios, pero la Memoria Económica que ha presentado el gobierno español indica que las medidas que se plantean van a suponer una fuerte reducción del gasto.

Como la reforma va a entrar en vigor de forma progresiva, sus efectos se van a notar más a partir del año 2020. La reforma va a suponer una reducción del gasto que el gobierno cuantifica en el 3,5% del PIB, lo que equivale al 40% del gasto actual.

Estas cifras son de una magnitud impresionante. El Gobierno español envió a Bruselas hace un año un informe que decía que el impacto de la reforma iba a ser de ese porcentaje. La Memoria Económica presentada por el Gobierno deja en evidencia a CCOO y UGT, que dicen que han conseguido que la reforma no fuera peor. Los datos muestran que lo que han firmado es tan malo como lo que decía el Gobierno hace un año.

-¿Como influirá en el retraso de la edad de jubilación?

-Una de las ideas más reiteradas a la hora de justificar el retraso de la edad de jubilación es que la gente se jubila antes de los 65 años. Los datos de la Memoria Económica muestran que en el Estado español la edad media de jubilación en 2010 fue de 63,84 años, y de 63,43 años en el régimen general, bastante cercana a los 65 años.

Los datos muestran, además, que la edad real va creciendo. En los últimos seis años ha aumentado: 0,4 años en el total del sistema y medio año en el régimen general. Este aumento se ha dado incluso en los últimos ejercicios, en los que estamos sufriendo una importante crisis económica.

El retraso de la edad de jubilación de 65 a 67 años supone un fuerte recorte del gasto. Según la Seguridad Social, la esperanza de vida a los 65 años de quienes tienen pensión de jubilación es de 20,01 años. Retrasar la edad de jubilación dos años supone, por tanto, reducir un 10% el gasto en pensiones.

-Es de suponer que el impacto de la reforma sea mayor en los colectivos con contratos más precarios.

-Efectivamente. Como consecuencia de la precariedad, del desempleo o de

la extensión del empleo a tiempo parcial, la mayoría de los trabajadores y trabajadoras van a tener 65 años y no van a tener cotizados 38 años y medio. Por lo tanto, se van a tener que jubilar a los 67 años.

Pocas veces se constata con tanta claridad los efectos especialmente negativos que tienen para las mujeres las políticas neoliberales. Mientras que el 75,94% de los hombres que ahora tienen una pensión de jubilación han cotizado 35 años, solo el 24,51% de las mujeres está en esa situación. Obviamente, en ambos casos, el porcentaje de quienes tienen más de 38,5 años es menor, aunque la Memoria Económica no especifica el dato real.

-En este contexto de recortes en el gasto de pensiones. ¿Qué otras medidas se recogen para el futuro?

-El denominado *Factor de Sostenibilidad* del sistema, que es la adaptación continua que se pretende realizar, y que va a tener un efecto muy negativo. A partir de 2027 se va a proceder automáticamente a nuevos cambios legales. Por ejemplo, la edad de jubilación, de mantenerse las previsiones actuales, se volverá a aumentar, en este caso hasta los 69 años. La Memoria Económica del Gobierno español ya contempla estas medidas y las traduce a términos económicos.

CCOO y UGT se han tragado todas las líneas rojas que prometían no traspasar, y ahora están haciendo el ridículo tratando de convencer a la población de que han conseguido grandes logros. Sin embargo, la clase trabajadora ya sabe lo que supone la reforma. El 70% de la población está en contra de la reforma, a pesar de que se ha orquestado una campaña de imagen para desinformar y para alabar la respuesta de quienes han hecho dejación de la defensa de los intereses de clase.

• Jornada de huelga en Konekta BTO

Las trabajadoras y trabajadores de la empresa Konekta BTO, actual empresa que lleva el servicio telefónico de atención al cliente de Iberdrola, secundaron mayoritariamente una jornada de huelga el 28 de febrero, en protesta por los seis despidos, tras la aprobación de un ERE por parte de la Dirección de Trabajo.

Este ERE fue rechazado en un principio por la propia Delegación Territorial de Bizkaia, al entender que, tal y como había manifestado ELA, se había producido una sucesión de empresa, con el único objetivo de abaratar los despidos, como así ha ocurrido.

Los trabajadores protestaban, también, por las condiciones de trabajo que la empresa Konekta BTO pretende implantar en su centro de trabajo en Güeñes, modificando las condiciones de trabajo que tenían en la anterior empresa. Todo ello cuando Iberdrola acaba de anunciar públicamente los grandes beneficios obtenidos durante el pasado año.

• Monumento en recuerdo de los republicanos y nacionalistas tolosarras fusilados

El 26 de febrero se realizó un emotivo homenaje en el cementerio de Tolosa a fusilados y asesinados republicanos y nacionalistas, en cuya memoria se inauguró un monumento emplazado en un lugar preferente del camposanto. Una delegación de ELA acudió al acto. Como en el resto de Euskal Herria, fueron muchos los militantes tolosarras de ELA que fueron fusilados durante la Guerra Civil y el franquismo.



www.ela-sindikaturua.org

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikaturua.org

Franqueo concertado
nº 08/207